

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5291

503/2025 EBAZPENA, azaroaren 18koa, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Begoña Garmendia Aldasoro andrea Haur eta Gazteen Buruko Nahasmenduaren Kudeaketa Klinikoko Unitateko buruaren kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarean.

72/2022 Ebazpenaren bidez, Begoña Garmendia Aldasoro andrea Haur eta Gazteen Buruko Nahasmenduaren Kudeaketa Klinikoko Unitateko buru izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarean.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Begoña Garmendia Aldasoro andrea Haur eta Gazteen Nahasmendu Mentalaren Kudeaketa Klinikoko Unitateko buruaren kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarean, erretiroa hartzeagatik, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko abenduaren 10eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia / San Sebastián, 2025eko azaroaren 18a.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
ANDREA GABILONDO CUELLAR.